

Prentsa-oharra

Makina-erremintarako mantentze-lan adimenduna

- ▶▶ *Power-OM europar proiektuak sistema berritzailea garatu du mantentze-lan igarlean, makinaren korrante-kontsumoa monitorizatuz*
- ▶▶ *IK4-TEKNIKER buru izanik, Goratu eta Fagor Automation euskal enpresek ere parte hartu dute*
- ▶▶ *Sistema berriak %75 murrizten ditu aurrekusi gabeko huts egiteak, %5 kontsumoa, eta %25 areagotzen du ekipoen fidagarritasuna*

(Eibar, 2016eko uztailaren 12a).- Ekoizpen industrialetako mantentze-lanen estrategia, normalean, praktika prebentiboen bidez egiten da, planifikatutako tarteen bidez, eta ekintza erreaktiboeekin osatzen dira horiek, matxurak egotekotan. Makina-erramintaren erabiltzaileak ez dira salbuespena, eta praktika horiek ondorioak izaten dituzte kalitatean, kostuan eta lortzen duten ekoizpenean.

Industriari erronka horren aurreko irtenbideak emateko, [Power-OM](#) europar proiektuak mantentze-lanen sistema adimenduna garatu du. Horren bidez, korrante elektrikoaren kontsumoaren seinalea erabiltzen da mantentze-lanen teknika igarleak txertatzeko, eta, horrekin, ekoizpena hobetzen da, hiru alderdi landuz: mantentze-lanen estrategiak optimizatzen dira, modu efizienteagoan kudeatzen da energia-kontsumoa eta ekipamenduen zein horien elementu kritikoaren fidagarritasuna hobetzen da geldiuneak murrizteko.

[IK4-TEKNIKER](#) zentro teknologikoa izan da buru [Power-OM](#) proiektuan, eta bi euskal enpresaren parte-hartzea izan du lagun, [Goratu](#) eta [Fagor Automation](#) enpresarena, hain zuzen ere. Horrek agerian jartzen du Euskadi dela aitzindaria makina-erremintaren sektoreko berrikuntzan. [Artis](#) (Alemania), [Predict](#) (Frantzia) eta [Monition Limited](#) (Erresuma Batua) enpresek eta Lulea Unibertsitate Teknikoak (Suedia) osatu dute partzuergoa.

Proiektua duela gutxi amaitu da, 4 urte ikerketan eman ondoren, 3,8 milioi euroko aurrekontua izan du eta EBk finantzatu du VII. Programa Markoaren bidez.

Honako hau da proiektuaren berrikuntza nagusia: makinaren zenbaki-kontrolak berak ematen duen informazioa erabiltzen da, berariazko sentsorizaziorik sartu behar izan gabe.

"Estrategia berri horrek probaketa-ziklo batzuen bidez ebaluatzen du makinaren osasuna. Ziklo horiek berariaz diseinatu dira, makinako osagai kritikoenen diagnostikoa egiteko eta, horrela, makinaren egoerari buruzko txostena egiteko", adierazi du Aitor Alzaga IK4-TEKNIKEReko ikertzaile eta Power-OM proiektuko zuzendari zientifikoak.

Prozesaketa horren ondoren, testaren emaitza sortzen da: makinaren "hatz-marka" ateratzen da, eta, beste batzuekin alderatuz hori, osagai kritikoenen egoera ebaluatu daiteke; makinaren ardatz nagusia eta gida linealak bereziki. Gainera, cloud plataforma garatu da proiektuan. Jasotako informazioa biltzen du horrek, eta, horrela, alderaketa-azterketak egin daitezke beste makina batzuekin.

Industrian mantentze-lanen sistema adimenduna sartuz, osagai horietan espero ez diren huts egiteak %75 murriztea du xede proiektuak, energia-konsumoa %5 murriztea eta %25 areagotzea ardatz nagusien eta gida linealen fidagarritasuna.

IK4-TEKNIKERi buruz

IK4-TEKNIKERek 30 urtetik gorako esperientzia du teknologia aplikatuan eta teknologia hori enpresara transferitzen, eta espezializazio-maila handia lortu du lau alor handitan (fabrikazio aurreratua, gainazal-ingeniaritza, produktu-ingeniaritza eta IKTak). Horri esker, gaitasuna du bere abangoardiako teknologia bezeroen beharren zerbitzura jartzeko.

Informazio gehiago

////////////////////////////////////

IK4-TEKNIKER | Itziar Cenoz

Itziar.cenoz@tekniker.es | tel.: 943 256 929

////////////////////////////////////

GUK | Javier Urtasun

urtasun@guk.es | tel.: 637 273 728